

txintxarri



Dantzari gorazarre

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Lasarte-Oriako dantzariak Okendo plazan / 4

TXINTXARRI

Keinutik puntura oholtzan

Bertsoa eta antzerkia uztartuko ditu datorren larunbateko Udaberriko Bertso Saioak / 6-7

EH Bilduk udalari leporatu dio txokoetan alor ekonomikoa lehenestea kalitatearen ordeiz / 2

Beltzak RTko 18 urtez azpiko errugbi jokalariaik, Euskal Ligako txapeldunak / 10

ELEKTRIZITATEA/
ELEKTRONIKA

MANTENTZE-LANAK/
ENERGIA

ADMINISTRAZIOA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

ATE IREKIAK!

www.lhusurbil.eus

Maiatzak 12 eta 19, 11:00etan

Maiatzak 16, 18:00etan

Goi eta Erdi Mailako
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza
IKASTAROKAK

Berrikuntza
PROIEKTUAK

...

Maiatza

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

2018

"Ttakunen proiektua bereganatu du udalak"

Lasarte-Oriako EH Bilduk agerraldia egin du, eta udalari leporatu dio alor ekonomikoa lehenestea zerbitzuaren kalitatearen kaltetan. "Ttakunen proiektua dira txokoak; udala ez zegoen behartuta lehiaketa publikora ateratzen", esan du Leire Elizegik

Adrian Garcia

Oraindik ebazpen ofiziala argitaratzekoa da, baina Udako Txokoen lehiaketa publikoak harrabotsa sortu du herrian. Izan ere, dozenaka familia daude zain udako hilabeteetan seme-alabak non utzi ditzaketen jakiteko. Lasarte-Oriako EH Bilduk arazoaren jatorrira jo du, eta udal gobernua kritikatu du zerbitzu publikoaren kalitatea sakrifikatzeagatik etekin ekonomikoaren mesedetan. "Udako Txokoak lehiaketa publikoa atera izana da herritar askok sufritzen duten ezinegonaren zergatia", azaldu du EH Bilduko bozeramaile Leire Elizegik. Pablo Barrio eta Kristina Bernalekin batera egin du prentsaurrekoa.

Udalaren argudio nagusia da udaleku irekiak ezinbestez atera behar zituela lehiaketara, legeak horrela diolako. Haatik, EH Bilduk ohartarazi du ez zuela zertan egin. "Udako Txokoak Ttakun Kultur Elkartek, herriko beste eragileekin elkarlanean, herriari eskaintzen dion kalitatezko zerbitzu pedagogikoa da. Proiektua Ttakunena da, ez udalarena. Ondorioz, udalak ez du berea ez den proiektu bat lehiaketara ateratzeko betebeharririk. Erabaki politikoa izan da guztiz".

EH Bildu saiatu da egoera bideratzen, baina 2017an proposatutako zuzenketa atzera bota zuten. "Euskara Departamenduko arduradun EAJk, PPK eta Podemosek ez zuten babestu, nahiz eta argudio teknikoak ere bazeuden".

Elizegiren arabera, erabaki "oso larria" da herriko euskara elkartearen proiektua lizitaziora ateratzea. "Ttakunen Udako Txokoak herrian du jatorria, eta oinarri pedagogiko sendoa du". Horrez gainera, urtez urte zilegitasuna indartu du proiektuak. "Ez da zerbitzu huts



EH Bilduko zinegotziak, Askatasunaren parkean, prentsa agerraldian. TXINTXARRI

bat, oinarri pedagogiko eta helburu pedagogikoa aberatsak dituen proiektua da".

Herri kohesioa

Bestalde, udalekuak herriko hainbat elkarterekin batera egiten dira, eta Elizegik nabarmendu duenez, horrek "herri kohesioa eta herritarren arteko elkarlana sustatzen du".

Azkenik, elkartek euskararen normalizazioan egindako lana goraipatu du EH Bilduko bozeramaileak. "Ezaugarri horiek guztiak ez dira nahikoak izan alkatetzaren erabakia saihesteko, ezta oposizioak, ezta Euskara Departamenduko EAJk ere atzera bota ahal izateko".

Horrez gain, Elizegik gogora ekarri du lizitazioak herritarrengan sortu dituen "kezka eta ezinegona". Horietako asko behin eta berriro jo dute Ttakun Kultur Elkartera, informazio eske. "Erantzule zuzen-zuzenak dira Euskara Departamenduko arduradun politikoak eta alkatetza. Ez dute herritarrek informatzeko beharra bete".

Ttakunek eskaintza propioa ateratzean eman du lehen azalpena udalak, prentsa ohar baten bidez. "Gainera, herritarrei

gezurra esan diete. Ttakun Kultur Elkartek bai jarri izan du dirua Udako Txokoak egiteko, nahiz eta udalak kontrakoa esan".

Edonola ere, arazoa orokorra dela uste du EH Bilduk, udalak antolatutako lehiaketa publikoetan kalitatea nahikoa kontuan hartzen ez delakoan baitago. Txokoen kasuan hala gertatu da. "Hezkuntza, hizkuntza eta zerbitzuaren kalitateari gailendu zaio arrazoi ekonomikoa". Hori dela eta, udalak eskainiko duen zerbitzuan kalitatea murriztu da. "Ez da jangelarik egongo, besteak beste".

Arazoa, orokorra

Kalitatea bermatzeko moduak badaude, adibidez, adituen epaimahi bat osatuta. Modu horretan, pisu gehiago izango luke proiektuaren alor teknikoak. "Baina hori egiteko plangintza txarra izan da, eta ez da egon borondate politikorik".

Aurrerantzean horrelakorik ez gertatzeko, mozio bat aurkeztuko du EH Bilduk astearteko udalbatzarrean. "Borondate politikoa nahikoa da egingarria izateko. Mozioak erakutsiko ditu alderdien nahiak eta borondateak. Hau da, dirua edo pertsonak lehenesten dituzten".



Sinadura bilketa hasi dute udaletxe atarian. Irudian, Zaldua eta Martin. TXINTXARRI

Goi tentsioko lineari baimenik ez emateko eskatu diote udalari

Herritarren gehiengoaren nahia errespetatzeko, eta linea eraikitzeke lizentziak ukatzeko sinadura bilketa egin dute

Txintxarri

Erraustegia eraikitzeke lanak hasi dira, baina herriko eragileak mobilizatzen jarraitzen dute, azpiegiturak inguruan ahalik eta kalte gutxien sor dezan. Lasarte-Oriako Aire Garbiak deituta, sinadura bilketa hasi dute, udalari eskatzeko erraustegiak behar dituen goi tentsioko lineak eraikitzeke baimenik eman ez dezan. Hain justu, udaletxe atarian azaldu dituzte horretarako arrazoiak.

Aire Garbiako Ricardo Ortegak aurkeztu du ekitaldia, eta Landaberriko Gurasoen Elkarteke Miren Zalduak eta LABeko Jon Martinek irakurri dute agiria.

Hondakinak erreko dituen egiturak funtzionatu dezan, ezinbestekoa da 132 kilovoltioko linea konektatzea. Horretarako, linea orokorrarekin lotu behar da, Hernani-Azpeitiakoaren arteko adar baten bidez. Urnietatik iritsiko litzateke herrira.

Landa eremuetatik barrena

Gipuzkoako Hondakinaren Kontsultazioaren aurreikuspenen arabera, Lasarte-Oriako lurzoru eraikiezinetatik pasako da linea, eta zapzi dorre eraikiko dituzte, horietako bost Babes Bereziko Landa eremuetan. Lurra mugitu, zuhaitzak moztu, landaredia desagerrarazi eta lurzorua okupatu beharko dute horretarako, besteak beste. Ondorioz, ingurunearen pasaia ezinbestez aldatuko da.

Zuhaitz autoktonoen eremuen hurbil eraiki nahi dituzte dorre horiek. Haritzak, haltzak, gaztainondoak, lizarrak pagoak, hurritzak, elorri zuriak, gorostiak, elorri beltzak... dauden lekuan. "Zuhaitzak mozteak eragin larri eta errekueraezina ekarriko luke, ez bakarrik landarediaren ikuspegitik, baita bertako faunaarentzako. Eragin paisajistikoa ahaztu gabe; azpiegiturak iraun bitartean luzatuko da", adierazi du Zalduak. Gainera, zuhaitz horiek dira Lasarte-Oriak dituen bakarrenetariok.

Eskaera alkateari

Erraustegiaren aurkako mobilizazioa handia da herrian, azken urteetan ekitaldi asko eta jendetsuak antolatu baitituzte. Zalduak ohartarazi duenez, Jesus Zaballos alkateak berak "behin baino gehiagotan" onartu du herritarren gehiengo proiektu horren kontra dagoela. "Alkate jaunak behin baino gehiagotan esan du lasarteoriatar guztien alkatea dela, eta guztiei zor diela bere burua, eta, horregatik, gehiengoaren nahia beteko duela, nahiz eta bestelako iritzia eduki berak".

Hain zuzen, sinatzaileek eskatu diote alkateari "hitza betetzeko", eta udalaren jabetzako lurzoruetan goi tentsioko linea pasatzeko baimenik ez emateko, linea egiteko lanen lizentzia ukatzearekin batera.

Parte hartze prozesua, aparkatzea errazteko

Inkesten arabera, aparkatzeko zailtasunak dira herritarren kezka nagusia. Egoera hobetzeko, udalari proposamenak igorri ahal dizkiote herritarrek maiatzaren 2tik 18ra bitartean. Bideragarriak direnak kontutan hartuko ditu Zerbitzu Publikoak sailak

Txintxarri

Aparkatzea da Lasarte-Oriako herritarren kezka nagusia. Horixe erakusten dute behintzat udalak egindako inkestek. Hori dela eta, alkatetzak hartu ditu hainbat neurri: Arranbideko aparkalekua egokitzea; alokairuko plazak eskaintzea Okendo, Tajamar eta Michelingo lurpeko aparkalekuetan; Aterpeko dendetan erosten dutenentzat deskontuak lortzea; eta, azkenik, Iñigo de Loiola eta Uistin kaleetan autoentzako leku gehiago jartzea. Edonola ere, proposamen gehiago jaso nahi ditu udalak, eta, horregatik, parte hartzeko prozesua abiatu du. Herritarrek postontzian jasotako gutun batean egin ahalko dituzte eskariak, eta maiatzaren 2tik 18ra bitartean helarazi udalari.

Jesus Zaballos alkateak aurkeztu du ekimena, Lourdes Acevedo Herritarren Parte Hartzeko zinegotzia eta Jose Maria Urdanpilleta Zerbitzu Publikoen arduradunarekin batera.

Modu horretan, herritarrek idatziz proposatu ditzakete hobekuntzak. Udalak eraikin publikoetan dituen postontzietan utzi beharko dute gutun hori, hilaren 18a baino lehen. www.lasarte-oria.eus



Acevedo, Zaballos eta Urdanpilleta, parte hartzeko gutuna eskuetan. TXINTXARRI

lasarte-oria.eus webgunean ere parte hartu daiteke. Izen-abizenak jarri beharko dituzte parte hartzaileek; izan ere, derrigorrezkoa da Lasarte-Orian erroldatua egotea.

Proposamenen galbahea

Behin herritarren ideiak jasota, txosten bat osatuko dute, eta Zerbitzu Publikoak sailari igorriko diote. Teknikariek banan-banan aztertuko dituzte, eta bideragarriak ez direnak baztertu. Besteentzako aurrekontua prestatuko dute, eta "lehentasunaren" arabera zerrendatuko dituzte. "Kostuaren

eta gehituko diren aparkaleku kopuruaren arabera erabakiko da, eta pixkanaka hurrengo aurrekontuetan txertatuko dira", azaldu du Zaballosek. Neurriak kosturik ez badu, "berehala" egingo dute.

Aparkatzearen inguruko azterketa enkargatu du udalak. Horren arabera, Lasarte-Oriako egoera ez da hain txarra. "Loidi Barren auzoa eta zentroa izan ezik, gainerako zonalde guztietan aparkalekuen superabita dago". Haatik, askotan kontzientziazio falta da arazoa. "Garajea duten askok kalean uzten dute autoa, erosoago zaielako batzuetan".



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

Otsoak, uuuuuu!!!

Ez gaituzte sinesten ezin izan dugulako frogatu bortxaketa egon denik, non eta mediku batek ez duen sinatzen marka fisikoak ditugunik. Kolpeak eta beste froga fisiologikoak.

Nik sinesten dizut eta gizonen auto inculpazioak ikusi ditut sare sozialetan. Asko poztu naiz bai batak eta batez ere gizonzkoenak irakurri ditudanean. Zergatik? Oso gogorra izan behar duelako bakoitzak bere buruari aitortzea une batean eraso egin zuenik eta noski hori publiko egiteak.

Iruñeko kasuan ordea bideoak daude. Froga gehiagorik... Astazakil horiek gainera grabatu eta zabaldu egin zutelako.

Epaia dio, ordea, neskak ez duela erresistentziarik jartzen. Beraz ez dago bortxaketarik.

Ez dago neskaren aldetik erresistentzia jartzerik bost gizonen aurka zer eginik ez daukala badakielako eta handik bizirik atera nahi badu, beste erremediorik ez daukala badakielako. Ez dago bortxarik? Hori baino bortxa handiagorik...

Bortxaketa zer da ordea? Indarrez penetratzea bakarrik? Desiratutako harremanez hitz egiten hasi beharko genuke. Desiratuak izan ziren?

Ez dugu modu sano eta libre batean bizi sexualitatea. Bestela ez dago ulertzerik epaile fiskal eta abokatu hauek zer praktika sexual dituzte hau normala iruditzeke?



TXINTXARRI

Ekintzaileak laguntzeko akordioa

Akordioa sinatu dute Lasarte-Oriako Coworking zentroak eta udalak. Horren bitartez, urtebetez % 50ean finantzatu die ekintzaile lasarteoriarrei Coworkingeko tarifaren kostua.

Urteko gehienez lau proiektu finantzatu dira, eta 4.646 euroko kostua izango du udalarentzat.

PREFOSTA
Herri Urrats 2018
Maiatzaren 13an, SENPEREN

IRTEERA: 09:15etan Kale nagusian (Lasarte-Oria) ITZULIA: 19:00etan

Bazkideak: 10€ Gainerakoak: 12€

ZATOZ GUREKIN
AUTOBUSEZ!

EMAN IZENA MAIATZAREN 10A BAINO LEHEN
Geltoki 4, behe. Lasarte/ 943 37 14 48/ ttankun@ttankun.eus

Antolatzaileak:



Dantza: eromenaren aurkako sendagaia

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Okendo plazan, Zambra, Erketz eta Kukukaren eskutik, Manuel Lekuona kutur etxetik kalejiran abiatu ostean. Miren Zalduak irakurri du manifestua gero: "Nazioen mugak ezabatzen ditu dantzak"

Txintxarri

Ariketa fisiko soila baino askoz gehiago da dantza. Musikaren laguntzarekin, sentimenduak adierazteko tresna ere izan daiteke. Beste gauza askoren artean. Dantzatzearen garrantziaz oroitarazi zuten ostiral arratsaldean. Izan ere, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute Okendon. Eguraldiak mehatxu egin arren, ez da oztopo izan ekitaldia kalean ikusteko, eta jende ugari bildu da plazara. Tartean ume asko. Askotariko ikuskizunak izan dira, herrialde ugariak. "Mugak ezbatzen" baititu dantzak, manifestuan irakurri duten moduan. Eta horixe erakutsi dute, amaieran denek batera dantzatu baitute.

Zambra taldearen sevillanak eta buleriak; Erketzen makil eta alpagata dantza; Kukukaren gipuzkoarrak, arrantzaleak eta fandangoa; eta Saharako dantza ere bai. Ordubete pasatxo dantzarien mugimenduek eta koloreek hartu dute plaza, eguzkia ezkutatu den arte. Berez, hilaren 29an zen nazioarteko eguna, baina aurreratzea erabaki dute, jai egunak zirela eta.

IKUS-ENTZULE UGARI BILDU DIRA PLAZARA. EKITALDIA DENAK BATERA DANTZATZEN AMAITU DUTE

Manuel Lekuona kultur etxean hasi dute ekitaldia. Kalejiran joan dira Okendo plazaraino, Kale Nagusitik igarota. Dagoeneko hor zituzten itxaroten ikus-entzuleak. Bata bestearen atzetik eskaini dituzte emanaldiak, ordu betez. Manifestuaren ordua iritsi da gero. Urtero koreografo batek idazten du; Lasarte-Orian Miren Zalduak irakurri du, Landaberriko Gurasoen Elkartekoak. "Dantza egitea eromenaren aurkako sendagaia da".

Denak batera dantzan, eta mokadutxoak janean amaitu dute ekitaldia. Baina ez dantza egiteaz. Urte osoan jarraituko dute gorputza astintzen, alai bizitzeko modu eraginkorra da eta.



Zambrakoak, sevillana dantzaten. TXINTXARRI



Saharako dantzariak, garaipen keinua egiten. TXINTXARRI

Hitzarturen lehen Gune Irekia, bihar Landaberrin

Herritarrak deitu dituzte hondakinen kudeaketari buruz eztabaidatzera. Larunbatean egingo dute parte hartze prozesuaren lehen saioa, Landaberriko Ikastolan. Egun osoan ahalik eta iritzi gehien bildu nahi dituzte, kontsentsuzko erabaki bat hartzeko

Txintxarri

Itxura hartzen hasi da Hitzarturen parte hartze prozesua. 2017-2030 urteen bitartean hondakinen kudeaketa plan bat adosteko helburua du proiektuak. Kontsentsuzko erabakia izan behar du herritarrena, denei eragiten dien gaia baita. Alde batetik, adituen batzordea eratuko dute, baina berebizikoa da ere gainerako pertsonen pentsatzen dutena jakitea. Horretarako da Gune Irekia elkarrizketa saioa. Lasarte-Orian egingo dute



Hitzartuko Joseba Belaustegi, prozesuaren aurkezpenean. TXINTXARRI

lehena, larunbat honetan. Landaberri ikastolan dute hitzordua, 10:15etik aurrera.

Elkarrizketa saio "naturala" da, Jokin Telleria Hitzartuko koordinatzaileak azaldu duenez. "Ahalik eta anitzena nahi dugu izatea". Ondoren aktak jasoko dituzte, eta parte hartzaileei eta hedabideei helaraziko dizkiete.

Herritarrek beraiek jarri ahaliko dute gai zerrenda. Alegia, haien kezkei buruz eztabaidatuko dute. Telleriaren hitzetan, parte hartzea "librea" izango da, eta norberak talde batetik bestera joan ahal izango du interesatzen zaion gaiaren arabera. "Ez da zertan egun osoa egon beharrik. Tartetxo batez parte hartu, eta beranduago ere itzuli daiteke nahi duenak".

Ez da aditua izan beharrik prozesu horretan aritzeko. Osatuko dute batzorde bat zientzialari eta beste akademikoekin, oraingoan herritarren ahotsa entzun nahi dute. "Egongo da gehiago edo gutxiago dakiena, baina

garrantzitsuena da bakoitzak bere iritzia ematea", dio Telleriak.

Lehen elkarrizketa 11:45-14:00 bitartean izango da. Bazkaria eskainiko dute gero, hiru eurotara: paella, fruta eta edaria. Arratsaldean jarraituko dute eztabaidek, eta festa batekin amaituko dute. Parte hartzeko eta bazkaria erreserbatzeko, komunikazioa@gurasos.org helbidean edo www.gurasos.org webgunean.

Haurrak ardatz

Erraustegia gai arantzatsua da, baina haren ondorioak sufrituko dituztenak dira haurrak, epe luzera begira antzemango baitira ondorioak. Hain justu, gaztetxoak ere deitu dituzte Gune Irekira, haiek ere parte hartu dezaten. "Jendea etorri daiteke haurrekin. Haientzako tailerrak egingo dituzte".

Euskal Herrian egingo duten gisa honetako lehen saioa izango da Landaberrikoa. "Ideia da hemendik zabaltzea beste herrietara".

Eskaintza kultural zabala maiatzean

Udal ordezkariak maiatzeko kultura agenda aurkeztu dute. Argazki erakusketa, dantza, zinea, Udaberri festa, jardunaldiak... ekintzaz betea dator hilabetea. Aterpea Merkatarien elkarteke 25. urteurreneko ekintza nagusiak egingo dira

Txintxarri

Arlo guztietako ekintzak izango dira hilabete honetan Manuel Lekuonan eta herrian. Horien guztien artean aipagarriak dira Aterpea eta Erketz EDTren urteurrenetako ekintzak.

Aterpea Merkatarien elkarteke 25. urteurreneko ospakizunekin jarraituz hainbat ekitaldi eramango ditu aurrera. Maiatzaren 14tik 19ra lasarteoriatarrek mende laurden honetan elkarteak egin dituen ekintzen argazki erakusketa gozatu ahalko dute, Antonio Mercero gunean.

Asteburu horretan ere, maiatzak 17koan, urtero antolatzen duen Udaberri festa egingo dute. Aurten aurkezpenean aurreratu legez, festa kalera atera eta herriko plaza guztietan izango da ekintzarik: musika, haurrentzako tailerrak, parrillada...

Erketz EDTek bere 50. Urteurrenaren barruan, ohikoak bihurtu diren bi hitzordu garrantzitsu egingo ditu maiatzaren 26an eta 27an: IV. Dantzari eguna eta XXX. Dantzari Txiki eguna.

Honez gain, zinema eta proiektio digitalen denboraldiari amaiera emango dio udalak.

Gaur, maiatzaren 4an, Okendo Zinema taldearen eskutik, *Cuando dejes de quererme* filma eskainiko dute.



Udal ordezkari eta teknikariak agendaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Petter Rabbit eta *Una razón brillante* filmak ikusi ahako dituzte haur eta helduek, hurrenez hurren, maiatzaren 6ko zine saioetan.

Opera garaiari amaiera emateko, Pucciniren *La Bohème* ikusiko dute maiatzaren 9an Manuel Lekuonara hurbiltzen diren herritarrek.

Eskaintza zabala

Euskarak, antzerkiak, dantzak eta bizikidetzak ere izango dute bere tarte hilabete honetako agendan.

Bihar, maiatzaren 5ean, familia guztiari zuzendutako *Wabi-Sabi* dantza emanaldia eskainiko du Mons Dansa konpainiak.

Dantzarekin jarraikiz, Udal dantza eskolako ikasleek maiatzaren 30ean ikasturte

amaierako emanaldia egingo dute.

Keinutik puntura Udaberriko bertso saio berezia maiatzaren 12an izango da. Aurten antzerkia eta bertsolaritza uztartuko dira saio berezi horretan.

Maiatzaren 14an, berriz, bizikidetzari buruzko *Gipuzkoarron Kultura Politikoa 2017* jardunaldia izango da Manuel Lekuonan. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ekintza horretan, politiko eta herritarren arteko solasaldia sustatu nahi dute.

Bestalde, Udaltop jardunaldiak hamargarrenez egingo dira Manuel Lekuonan. Aurteangoan, Udaletako Euskara zerbitzuetako teknikariak 2019an Euskaraldia ekimenaren barruan eman beharreko pausoei buruz hausnartuko dute.

Euskal doinuak Kataluniara eramango dituzte Xumelak

Katalunian barrena ibili dira Lasarte-Oriako Xumela abesbatzako kideak. Zarauzko Montetxio eta Zumaiako Olgarroko kideekin batera, 70 kantariaren taldetxo osatuta giro ederrean igaro dituzte lau egun.

Igaro dituzten "egun ederrak" eskertzeko, haritz kimuak oparitu dizkiete Gironako eta Llanoko



Xumela korua. TXINTXARRI

udal ordezkariari. Lasarte-Oriara etortzeko gonbidapena luzatuta, "poz pozik" itzuli dira etxera, beste behin amets eder bat beteta.

Lierni Rekondok irabazi du Altzako bertso paper lehiaketa

Zortzigarren urtez Altzako Bizarrain euskara elkarteak bertso paper lehiaketa antolatuta du, eta Lierni Rekondo lasarteoriatarra izan da garaile. Gai eta doinu librean osatu ditzakete partehartzaileek eta Lierni Rekondoren *Odol husten* bertso sorta izan da irabazlea.

Tableta digital bat, eta Altzako baserrietako produktuez osatutako otar eder bat jaso ditu sari gisa.

Kultur aniztasuna erakusteko, argazki lehiaketa eskolan

Argazki lehiaketa antolatu dute Sasoeta-Zumaburu eskolako guraso elkarteak. Guztira 23 argazki aurkeztu dira lehiaketara, eta horien artean bi izan dira garaileak.

Idoia Kerejetaren apar festa argazkia izan da lehenengo postua lortu duena, eta Naiara Garciak aurkeztutako irudiak, berriz, bigarrena.

Pentsionistek mobilizatzen jarraituko dute

Lasarte-Oriako Pentsionisten Koordinakundeak mobilizatzen jarraituko du, ez baitaio nahikoa iruditu Espainiako Gobernuaren eta EAJren arteko akordioa, pentsioak KPIren arabera eguneratzeko. Gainera, herritarrei deitu die parte hartzera larunbatean, hilaren 5ean, Donostiako Cervantes plazan egingo den manifestazioan.



Sari banaketa. TXINTXARRI

Munduko zenbait lekutako paisaia, janari eta ohitura irudiek osatu dute erakusketa; Txile, Sahara, Nafarroa, Maroko eta Bali, besteak beste.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Maiatzak 18

OSTIRALA

7€

17:30 URNIETA

Egape ikastolako jolastoki estalia

Sarrerak salgai:

LASARTE-ORIA

- Ttakun kultur elkartea.

URNIETA

- Bikain okindegia. San Juan plaza.
- Xauxar Taberna. Idiazabal kalea.






Joxe Kruz bertso saioko antolatzailea, aktore rolean. TXINTXARRI

"Ikaragarria da urtero jendeak erakusten duen prestutasuna"

JOXE KRUZ LABAKA UDABERRI SAIOKO ANTOLATZAILEA

Orain urte batzuk hasi ziren bertsolaritza herriko beste diziplinekin jorratzen, jende gehiagorengana hurbiltzeko. Egun Udaberriko Bertso Saioa ekitaldi indartsua da

Adrian Garcia

Urte dezente daramatzate Udarriko Bertso Saioa egiten. "Hamar bat bai", Joxe Kruz Labakaren arabera. Hasiera-hasieratik egon da antolaketa lanetan murgilduta, eta saioaren bilakaeraren lekuko zuzena izan da. Hasieran sanpedroetan egiten zuten gazteekin bertsolaritza ekitaldi bat, baina ez zuten asmatu jendea erakartzen, eta udaberrira aurreratzea erabaki zuten. "Orduan proposatu zuten herrian egiten ziren beste

jarduerak bertso saioan txertatzea". Orduetik izaera berezia hartu du. Dantza, bakarrizketak, abestiak, eta beste diziplinak nahastu izan dituzte. Aurten Kukuka Antzerki eta Dantza Taldeak parte hartuko

"EGAÑA ETA LUJANBIO URTERO OSO GUSTURA ETORTZEN DIRA, SAIO DESBERDINA DELAKO"

du, antzerkia bertsolaritzaekin ezkonduko baitute.

Asmatu zenuten Udaberriko Bertso Saioaren formatuarekin. Egun saio indartsua eta erakargarria da.

Bai, erreferentzia diren bi bertsolari etortzen dira beti, eta gero Ane [Labaka], herrikoa delako. Xabi Paya etorri izan da ere; oso ongi moldatzen zen mota honetako saioetan. Ez da saio tradizionala; herrian beste diziplinetan gauzak egiten dituen jendearen ikuskizunak txertatzen ditugu. Ez da bertso saio soil.

Erakusleho moduko bat bada bertsolaritza, bertsozaleak ez direnak erakartzeko, ezta?

Horrexen bila ibili gara, hain justu. Agian badago baten bat bertso saio batera joango ez dena, baina tartean beste diziplina bat sartuz gero, bertsoak gustura entzungo dituen.

Gainera, diziplinen uztarketa horrek eman du gero beste proiektu eta elkarlanerako oinarria.

Orain urte batzuk Semblante Andaluzekin egin genuen bertso saio bat elkarlanean, bertsoak zuzenean itzultzen. Besteetan dantzarekin egin izan dugu, aurrekoan trikitiarekin, literaturarekin... Orain bi urte bakarrizketekin egin genuen. Hortik sortu zen *Erradikalak* gara ekimena. Anek eta Bea Egizabalek ikusi zuten sakondu zezaketela, eta Euskal Herrian bueltaka dabilen ikuskizuna sortu zuten.

Nola izaten da beste diziplina aukeratzeko prozesu hori?

Urte hasieran elkartzen gara zer gai jorratuko dugun aztertzeko. Askotan gai bati buruz hasten gara pentsatzen, baina beste puntan bukatzen dugu. Baina gaia edozein dela ere, nabarmentzekoa da jendearen prestutasuna. Oso gutxitan eman digu ezezkoa. Alde batetik normala da, jendea urte osoan aritzen baita bere kontuetan, eta horrelakoetan lana ikustarazteko aukera dute. Edozeinengana joan, eta denak daude irekiak ekarpenak egin eta laguntzeko. Ez dakit beste herrietan nola gertatzen den, baina hemen izugarria da herritarren inplikazioa.

Bertsolaritza eskaintzen ditu aukera asko beste diziplina askorekin uztartzeko.

Bai. Agian lehen bertsolaritza bere jardunera mugatua zegoen. Baina orain beste esparruetara ari da zabaltzen, eta ongi etortzen zaio. Herrian bertan, adibidez, Literatur Txokoak urtero egiten du saio bat idazleekin batera. Emakume bertsolariak ere ari dira beste kontu batekin.

"BERTSOLARITZA MUGATUAGO ZEGOEN LEHEN, BAINA UZTARTZEKO AUKERA UGARI EMATEN DITU"

Umeak ere izaten dute lekua udaberriko saioan. Aurten Kukukako gazteak arituko dira.

Bai, baina aspaldiko kontua da hori. Ostadarreko futboleko nesken kadeteak sartu izan ditugu oholtza gainera baloiarekin txorakeriaren bat egitera. Beste batean igo genituen Beltzak taldearen mutil koskorak. Dantzan beti egon dira haurrak. Idazleetan gaztetxo bat ere bagenuen. Aurten ere izango dute zeregina.

Antzerkiari egokitu zaio aurten saioan parte hartzea. Nola antolatu duzue? Zer aukera ematen ditu antzerkiak?

Esketx txikiak egin, eta batzuetan gaia bera izango da. Beste batzuetan gai jartzailea eramango du bat proposatzera.

Jorratuko al da antzerkigintza bat-batekotasuna? Agian aktoreak ohitura gutxiago izango dute horretarako.

Pare batek-edo zerbait inprobisatuko dute, baina lehendik landuko dituzte esketxak. Guri ere komeni zaigu nolakoa izango den jakitea, gai jartzaileak saioa bideratu dezan. Bertsolariak inprobisatzearekin nahikoa dugu.

Andoki Egaña eta Maialen Lujanbio izango dira Lasarte-Orian. Urte askotan parte hartu dute. Nolakoa da haien harremana saioarekin?

Oso gustura ematen dira, haientzako ere oso saio desberdina delako. Deitutako guztietan parte hartzen dute. Urte batzuetan bertsolariak mozarrotuarazi eta haien roletik aterarazi ditugu. Eta, halere, etortzen jarraitzen dute. Harreman estua dute herriarekin; urtean hiru bat aldiz-edo etorriko dira.

Ane Labakak ere ez du hutsik egiten.

Herrikoa da, eta berari ematen zaio beste herrietan izaten ez duen aukera. Gainera, beste biek batera saio batean aritzea ez da egoten bertsolari askoren eskuetan.

Larunbateko saioaren inguruan zerbait aurreraterik posible al da? Aktoreek kartzelako saioa egin behar dutela zabaldu da.

Froga bat egingo dugu. Bertsolari bati antzerkitxo bat egingo diote, eta hori izango da berarentzako kartzela gaia. Gero hurrengo etorriko da, hari ere ahal den pieza antzekoena antzeztuko diote, eta ea hari zer iradokitzen dion. Ikusiko dugu antzerki berdintsua ikusita zer sortzen duten bertsolariak.

"Antzerkiaren aurpegi guztiak erakutsiko ditugu"

ERIK ARZALLUZ KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLAKO KIDEA

Inolako zalantzarik gabe gonbiteari baiezkua eman, eta Udaberriko Bertso Saioa prestatzen ari dira Kukukako kideak. Ia 30 antzezlek hartuko dute parte aurtengoan

Maddi Noriega

Antzerkiaren taula gainean esperientzia mordoxka du Erik Arzalluz (Lasarte-Oria, 1991) lasarteoriatarak. Egun, Kukuka Antzerki eta dantza eskolako antzerki taldeen koordinatzaile lanetan ari da, eta datorren larunbatean egingo den Udaberriko Bertso Saioan parte hartuko duten gaztetxoan antzerki taldeen prestaketekin buru-belarri dabil. Ilusio handiarekin jaso zuten ekimenean parte hartzeko gonbita, eta urduritasunak nabari baditu ere, ziur da bertsolariekin batera, lan bikaina egingo dutela.

Kukukako zenbat taldek hartuko dute parte?

Landaberriko taldeak arituko dira. Sasoetako ikasleak ere aritzen dira Kukukan, baina hauek klase orduetan izaten dituzte antzerki saioak, ordubeteak. Landaberrikoekin, berriz, arratsaldetan, eskola orduz kanpoko saioak izaten dira, ordu eta erdiko saioak. Horiekin Udaberriko Bertso Saioaren lanketa egitea errazagoa izan da, izan ere, arratsaldetan saioa luzeagoak dira, eta kultur etxean egiten ditugu, gainera.

Guztira antzerki eskolako 28 ikaslek hartuko dute parte. LH



Erik Arzalluz bertsolari rolean. TXINTXARRI

5-6 mailako bi taldek hiru esketx egingo dituzte. DBH 1-2 mailako hogeit hamar ikasle ere aritu dira, eta hauek bi esketx eskainiko dituzte.

Baina gaztetxoan bi taldez gain, helduek hirugarren talde bat ere arituko da taula gainean, eta oker ez banago talde osoak hartuko du parte. Beldur apur bat ere ematen dit gazte guztiak kontrolatzea, baino oso erronka polita da.

Nik gehienez, hamabost ikasleren parte hartzea espero nuen, eta begira, ia bikoitza, hogeita hamar arituko dira. Oso

gustura nago egiten ari diren lanarekin.

Bertsok bat batekotasuna du oinarri. Antzerkiak, ordea, behar du aurretzeko prestaketa bat. Nola uztartuko dira?

Antzerkiaren aurpegi ezberdinak erakusten saiatuko gara. Gaztetxoaren hiru esketxak, komediatik joango dira. Esketx komiko antzekoak egingo dituzte eta horren aurrean, bertsolariak ikusten duenaren arabera bota beharko du bertsoa.

Beraiek ari dira guztia sortzen, euren esku uzten ari

gara dena. Oso ondo etorriko zaie publiko aurrean aritzeko saio hau, batez ere dagoen lan guztiaz jabetzeko, horrelako lan batean parte hartzea tontakeria bat ez dela jabetzeko.

DBHko taldeak hitza baino mimika gehiago erabiliko dute. Bi ariketa ezberdinetan jardungo dira; lehena inprobisaketa prestatu bat izango da, eta gorenean daudenean, isildu egingo dira antzezleak; bertsolariek eman beharko diote amaiera. Bigarren ariketa, aldiz, mimika hutsean egingo duten arren, errimarekin bat etorriko diren hitz solte batzuk erabiliko dituzte. Bertsolariek hitz horiek erabili beharko dituzte gero bertsoa osatzeko.

Helduenean, berriz, kartzelako ariketa ekarriko dute oholtzara. Hiru bertsolariak banan-banan agertuko dira ezenatokira. Antzezleek euren obraren zati berbera erakutsiko diote bertsolari bakoitzari, eta horiek ikusi edo interpretatu dutenari jarriko diote bertsoa.

Zer suposatzen du gaztetxoentzat erreferente diren hiru bertsolarirekin taula gainean aritzeak?

Ba pentsa, telebistan edota egunerokoan bolo-bolo dabiltzan hiru bertsolarirekin jarduteak zer suposatzen duen beraientzat; oso hunkituta daude.

Entsegu bakoitzeko lehen ordu erdia hamabostaldia prestatzeko erabiltzen dugu, eta gainerako tartea Udaberriko Bertso Saioa lantzeko. Horrekin hasten garenean, oso serio hartzen dute, konturatzen baitira saioak duen garrantziaz. Erronka gisa jaso dugu guztiok. Hiru aste barru Kukukaren hamabostaldia dugu, eta hori gertu izanda, nerbioak

antzematen dira. Baina oso lan ona egiten ari dira bi saioen entseguak uztartzeko.

Zein gai landuko diren aurreraterik bai?

Ezin dugu gauza handirik aurreratu, baina egunero-kotasunean ematen diren gaiak aterako dira taula gainean.

Nork sortu ditu taularatuko dituzuen obrak?

Martin Anso eta biok ari gara gaztetxoan taldeekin lanean, baina beraiek ari dira guztia lantzen. Udaberriko Bertso Saioan parte hartzeko proposamena jaso genuela esan genienean, izugarri motibatu ziren. Guk gaiak proposatu genizkien, eta horrekin antzezleek proposamenak ekarri zituzten. Ikasgela berdinekoak direnez, elkarren artean komentatuta, proposamenak ekarri zizkiguten, bost edo hamar minutu eman genizkien buruan zutena prestatzeko, eta hortik moldaketak egiten hasi ginen.

Oso gustura gaude egiten ari diren lanarekin; beraie ere oso ondo etorriko zaie horrelako saio batean parte hartzea.

"SAIOAK DUEN GARRANTZIAZ KONTURATZEN DIRA. ERRONKA GISA HARTU DUGU GUZTIOK"

"OSO HUNKITUTA DAUDE; ILUSIO HANDIA DUTE HIRU BERTSOLARIREKIN OHOLTZAN ARITZEKO"



Ttakuneko bazkide zara?

Maiatzean, **KEINUTIK PUNTURA Udaberriko Bertso Saio** bi sarrera zozkatuko ditugu gure bazkideen artean. Zozketan sartu nahi baduzu, eman izena maiatzaren 7a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, Ttakunen bulegoan, 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita edota 943 37 14 48 zenbakira deituta.



Bazkideetza informazioa




@TtakunKE

PLAZAN BAZAN

Kanpalekua



Hamar txatal horietatik bost irudi nagusiari dagozkio, baina beste bostak ez, hala diruditen arren. Zeintzuk ote dira txatal engainariak eta zeintzuk benetakoak?



Kanpalekuan, segundo bat geroago




Begira, begira!

Segundo eskas batean gauza asko gertatu dira kanpalekuko gune honetan. Bila itzazu bi irudien arteko 17 aldeak.


Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak, **HIRU** hitza osatzen duten hizkiez (H, I, R eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Ba dOK Hamairu

Bilatu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbiñe Ubeda

Azkorteko Erromeria

2018ko maiatzaren 6an

Indarrak berreskuratzeko salda, txorizoa, odolkia eta edaria tabernan!



11:00: Meza Azkorteko ermitan
 12:00etatik aurrera: Herri-kirolak
 Ttiriki-Ttarraka taldeak girotutako erromeria



Aurten ere autobus zerbitzua doan

*Goizeko 9:00etatik aurrera, erretiratuak elkartetik (Kale Nagusia 40) ermitara.

**Ezin izango da kotxez ermitara igo, bidea itxita egongo da.

18 urtez azpiko Beltzak, Euskal Ligako txapeldun

Durango-Elorriori gailendu zaio finalean Zarautz Babyauto-Beltzak taldea. Partida gogorra izan da, eta hiru zutoinetara asmatutako jaurtiketek erabaki dute finala (25-19). Asteburu honetan Espainiako txapelketa jokatu dute, Katalunian

Adrian Garcia

Epe luzera begirako lanek ematen dituzte fruituak. Beltzak Errugbi Eskolaren adibideak ezin hobeto erakusten du hori. Lasarte-Orian harrobia sortzeko abiatu zuten orain urte batzuk. Eta zaletasuna piztearekin batera, emaitza ikusgarriak lortzen ari da. Larunbatean 18 urtez azpiko taldea Euskal Ligako txapeldun izan zen, Elorrio-Durangori finalean 25-19 irabazita. Espainiako Txapelketa jokatu dute orain.

Partida gogorra izan da. Babyauto Zarautz-Beltzak RT beste finalista baino hobeto sailkatu da ligan, eta, beraz, finala etxean jokatzeko eskubidea irabazi zuen. Harmailak lepo egon dira Zarauzko Astin, eta 700 bat pertsonak eztarria utzi dute animoak ematen. 400 inguru sartzen dira harmailetan, baina behealdean beste dozenaka eta dozenaka zaletu zeuden.

Talde indartsua da Durango Elorrio. Baina abiadura



Beltzak-eko jokalaria, garaikurrarekin, partidaren ostean. TXEMA VALLES

aprobetxatuz, lehen hiru entseguak etxekoan izan dira; horietatik bi transformatze asmatu dituzte. Eta, horrenbestez, 19-0 jarri dira lehen zatian.

Baina gutxi iraun die lasaitasunak. Bi entsegu eta

beste horrenbeste transformatze lortu dituzte bizkaitarrek, eta 19-14 hurbildu dira markagailuan.

Zigor kolpeetan erakutsitako abileziak erabaki du partida. Bi asmatu dituzte etxekoek, eta Durango-Elorrioren beste

entsegu ez da nahikoa izan partidari buelta emateko (25-19).

Edonola ere, kanpotarrek ez dute amore eman. Entsegu bat emendatzea nahikoa zuten finalari buelta emateko.

Pozarren ospatu du Babyauto Zarautz-Beltzak-ek. Halere, mutil horiek badakite zer den Euskadiko txapeldun izatea. 16 urtez azpikoak zirela ere eskuratu zuten txapela. Lasarte-Oriako harrobiko zazpi jokalarik jokatu dute finala.

Haatik, ez da bukatu errugbilarien denboraldia. Hurrengo asteburuan Sant Cugat del Vallesera (Katalunia) bidaiatuko dute, Espainiako txapelketa lehiazera. Zortzi talderen artean erabakiko da irabazlea larunbat eta igandean bitartean.

Eskolen batura, giltzarria

Oso pozik dago Antonio Vega Beltzak taldeko zuzendaritzako kidea. "Final honek erakutsi du eskolen arteko elkarlana arrakastatsua dela". Hain justu, bi finalistak eskolen arteko batasunetik sortu dira.

Mugarri bat ezartzen ari da Beltzak Errugbi Eskola Lasarte-Orian. Garaipen honek berretsi du taldeko zuzendariak bazekitena; hurrengo urteetan lehenengo taldeari hauspoa emango dioten jokalaria ez dira faltako. "Belaunaldi berriek ezarriko dituzte desberdintasunak. Nire seme-alaben kasua aipatuko

dut. 15 urterekin hasi zen errugbian nire semea. Nire alabak, ordea, adin horrekin zortzigarren urtea du kirol honetan". Eta zelaian ikusten dira desberdintasun horiek. "Gazteek askoz ere joko dinamikoagoa egiten dute, ikuspegi zabalagoa dute. Eskolak eman die hori".

Halere, beste toki batzuekiko desabantaila dutela uste du Vegak. Izan ere, Euskal Herrian haurrek ezin dute 8 urte bete arte federatutako kirolrik jokatu. "Arau horrek gutxiengo diren kirolei egiten die kalte".

Euskadiko selekzioa

Baina Beltzak eskolatik harago ere ongi egiten ari dira Lasarte-Oriako beste kirolari batzuk. Esaterako, 18 urtez azpiko Enara Ramirez Euskadiko selekzioarekin aritu da asteburuan. Frantziako Caen hirian jokatu du txapelketa bat. Bestalde, Oihane Puertas ere aritu da senior Euskal selekzioarekin. Erkidegoen arteko txapelketa jokatu du Valentzian, eta bosgarren geratu da euskal selekzioa. Biek Hernaniko taldean jokatzen dute.

LASARTE-ORIAKO HARROBIKO ZAZPI JOKALARIK JOKATU DUTE ZARAUZKO FINALA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONALEN IGOERA FASEA

Ostadar SKT - Intxaurdi KE

Larunbata. 17:15. Michelinen.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Allerru KJKE - Ostadar SKT

Larunbata. 17:45. Plazeta, Lezon.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Anaitasuna CD

Larunbata. 15:30. Michelinen.

JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA

Landetxa KT - Ostadar SKT

Larunbata. 17:30. Ugalde Ventas, Iruen.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Astigarragako Mundarro FKE

- Ostadar SKT

Igandea. 10:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA

Allerru KJKE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:45. Beraun, Erreterian.

LEHENENGO MAILA

Santa Teresa - Reala

Igandea. 12:00. El Vivero, Badajozen.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Patricio Cocktail Bar - Bar Buenetxea

Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.

Insausti Kattagorr - Txoko Taberna

Autocares LuisCar

Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.

Izen gabe - Trumoi Taberna

Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.

Asador Irigoien - Avenida Taberna

Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.

3. NAZIONAL MAILA

Eguzki Antonio Aroztegia - Muskiz

Igandea. 10:00. Kiroldegian.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Euskalduna Andoaindarra SD - ISU

Leihoak Eguzki

Ostirala. 20:45. Alluralde, Andoain.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Cecilia Frutadenda Eguzki - Pizzeria

B17

Ostirala. 18:00. Kiroldegian.

JUBENILAK

Bar Lasarte Eguzki - Aldapeta

Larunbata. 09:30. Kiroldegian.

KADETEAK

Balardi Harategia - Zarautz KE

Larunbata. 11:15. Kiroldegian.

SASKIBALOIA

SENIOR 3. MAILA

Ostadar SKT - Mondragon

Unibertsitatea

Ostirala. 20:30. Kiroldegian.

SENIOR 1. MAILA

LIGAKO KANPORAKETA

Oiarso - Ostadar SKT

Larunbatean. 16:00. Kiroldegian

JUNIOR PARTIZIPAZIOA

Ostadar SKT - Easo

Larunbata. 11:45. Kiroldegian.

KADETE PARTIZIPAZIOA

Ostadar SKT - Easo

Larunbata. 16:00. Donostian.

IGERIKETA

BENJAMINAK

Benjaminen arteko bosgarren

jardunaldia jokatu dute.

Larunbata. 15:30. Hernaniko kiroldegian.

ALEBINAK

Ligako zazpigarren jardunaldian

lehiatuko dira.

Larunbata. 18:15. Hernaniko kiroldegian.

WATERPOLOA

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta,

bigarren waterpolo jardunaldian parte

hartzeko aukera izango dute LH 3 eta

4. mailakoek.

Larunbata. 11:30. Kiroldegian.

PILOTA

4 T'ERDIKO TXAPELKETA

Solano - Oiarbide

Ostirala. 19:30. Michelinen.

Artetxe - Lertxundi

Ostirala. 19:30. Michelinen.

Orbegozo - Iruretagoiena

Larunbata. 18:00. Añorgan.

INFANTILAK

Intza 1 - Alde Zaharra 1

Ostirala. 19:30. Michelinen.

TXIRRINDULARITZA

XXVIII. ZARAUZTARRA SARIA

Kadete mailako txirrindulariek

lasterketa izango dute, Zarautzen.

Larunbata. 10:30. Zarautzen.

TRIATLOIA

SENEREKO TRIATLOIA

Trinko taldeko Iñigo Ibarburuk

Senperoko triatloiean parte hartuko

du. Igandea. Senperen.

ERRUGBIA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

BabyAuto Zarautz-Beltzak Espainiako

Txapelketa jokatu du Katalunian.

Larunbata eta igandea. Sant Cugat del Valles, Katalunian.

Lasterka egiteko baliatu dute asteburua herritarrek

Lasarteoriarrek ez dute atsedenik hartzen. Zubiri, Sakana, Amasa edo Pagoeta; gehienek mendi lasterketak egin dituzte. Andoaineko Santa Krutz kros lasterketan, berriz, Raul Gomez Margallo podiumean izan zen; hirugarren sailkatu zen



Eneko Agirrezabal, Kamel Ziani eta Raul Gomez Margallo izan ziren Andoaingo podiumean. AIURRI

Txintxarri

Santa Krutz jaietako herri lasterketa lehiatu zen maiatzaren 1an. Lasarteoriar ugari izan zen bertan lasterka. Horien artean aipatzeko da Raul Gomez Margallok lortutako hirugarren postua.

Baina errepidea eta kaleak alde batera utzita, mendian lasterka eginez gozatzen duen herritar ugari dago. Horiek hainbat probatan izan dira, apirilaren 28-29ko asteburuan.

Nafarroa Xtrem probako lasterketa ezberdinetan izan ziren herritarrek

33 kilometrotako proban Lasarte-Oria Trail taldeko Javi Olazagoitia (04:02:23) eta Anabel Eleno (04:21:38) kidez gain, Beñat eta Iurgi Los Arcos izan ziren; 04:12:07 eta 4:12:08 markak egin zituzten, hurrenez hurren.

68 kilometroko proba gogorren, Jesus Osuak 9:32:39 denbora behar izan zuen helmugara iristeko. Eta 21 kilometrotako gaueko proban, Iker Ortegak 3:16:25 egin zuen.

Hurrengo egunean, Beñat Los Arcosek Irantzuko I. Trailean parte hartu zuen. Hirugarren iritsi zen helmugara, 35:24 denbora eginez.

Loatzoko igoera-jaietsieran eta Sakanako mendi martxan ere Lasarte-Oria Traileko kideak izan ziren.

Amasako proban Richard Marcos lehen postuetan iritsi zen helmugara, podiumetik gertu. Iosu Galdos, Ramon Mendizabal, Edu eta Mikel Ormazabal ere bertan izan ziren. Sakanan, berriz, 25 eta 57 kilometrotako martxak egin zituzten taldeko kideek.

Bestalde, Izarraitz Mendi lasterketan izan ziren Marc Bages (3:08:09) eta Egoitz Salsamendi (4:15:48) herritarrek.

Pagoetako mendi lasterketan bikotekako proban ere parte hartu zuten lasarteoriarrek. Cecilia Juarez eta Iker Turrillasek 56:13 marka egin zuten; Idoia Telleriak eta Urko Olaizek, berriz, 56:20.

Herritarrek, Getariako Triatloiko lehen postuetan

Martxoaren 29an Getariako III. Triatloia jokatu zen. 410 parte hartzaile izan ziren Getariako hondartzako irteeran. Horien artean, hainbat lasarteoriar izan ziren, eta lan ederra egin zuten.

Pili Bodegas beterano mailako bigarren eta orokorreko bosgarren izan zen, 01:05:38 eginez. Aimar Sukunza kadetea ere bere mailako podiumean izan zen, 01:15:11 markarekin hirugarren postua eskuratu.

Aipatzekoa da ere Trinko taldeko Iñigo Ibarburuk igeriketa atalean egindako lana. Bigarren atera zen uretatik, baina txirringan eta lasterketan ezin izan zion errenta hori eutsi, eta 1:16:15 behar izan zituen proba amaitzeko.

Buruntzalde IKTKo igerilari gazteak, markak hobetzen

Udaberriko Ligako bigarren jardunaldian lehiatu dute Buruntzalde IKTKo sei kideak, eta zenbait marka pertsonal ondu dituzte.

Lander Sorozabalek 50 m. bular proban 38,06an utzi zuen bere marka. Aimar Sukunzaren 400 m. libreko marka berria 5:36,09 da. Aintzane Sarobek, aldiz, bi marka hobetu ditu: 800 m. libre, 10:13,64 eta 400 metro libre, 5:03,49.

Taldeko gaztetxoek, berriz, Kirol Zehaztasun ligako eta alebin ligako jardunaldiak izan zituzten apirilaren 21ean. Lan polita egin zuten eta lehen postuetan izan ziren hainbat igerilari, baita lau estiloetako errelebo taldea ere.



UDABERRIKO BERTSO SAIOA

Maiatzak 12, larunbata • 22:30

Manuel Lekuona Kultur Etxea • Lasarte-Oria

BERTSOLARIAK

Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Ane Labaka

GAJ JARTZAILEA

Uxue Loinaz

ANTZERKIA

KUKUKA antzerki eta dantza eskola

Bea Egizabal

Ane Huizi, Mailu Arruti,
Miren Egizabal

Intza Alkain

SARRERAK

5,50€

10 sarrerako bonoa 45€





Ostadarreko jokalaria, Mundaroren arean, kórner batean. TXINTXARRI

Argi izpi bat Michelinen

Ostadar Erregional Preferenteak dena eman du Mundaroren aurka, eta hiru puntu baliotsu lortu ditu (1-0). Partida oso fisikoa jokatu dute hasieratik. Mailari eusteko itxaropena ez dute galdu; bi partida geratzen zaizkie denboraldi kaskarra salbatzeko

Adrian Garcia

Ez da esperotako denboraldia egiten ari Erregional Preferenteko Ostadar SKT. Baina sailkapeneko azken postuetan itota egon arren, ahalegin betean da nola edo hala mailari eusteko. Eta oraindik bada itxaropenik. Michelinen jokatu du taldeak Astigarragako Mundaroren aurka, larunbatean. Zerua hodeitsu, laino gris ilunek estalita. Baina ez du ekaitzik bota azkenean. Ivan Ruizek kontraeraso azkar batean buruz gola sartzean argitu du Michelin. Nahiz eta partidako azken uneetan estu ibili, markagailuari eutsi eta hiru puntu baliotsu eskuratu ditu etxeko taldeak.

Hil ala biziko partida zuen Ostadarrek; garaipena lortu ezean, 1. Erregionalera jaistera kondenatuta. Arriskatzera behartuak, Asier Aizpurua eta Ander Rekondoren mutilek dena eman dute hasiera-hasieratik. Horren adierazgarri, lehen minutuetan jaurtitako kórner bat: ia talde guztia aurkariaren area barruan. Baloiak Mundaroren sarea amaitu du laugarren minutuan, baina epaileak baliogabetu du gol hori,

atezainari falta egin dietelakoan. Harmailak haserre erantzun du.

Edonola ere, Ostadarrek ez du etsi. Aurrelariak goian presio egin, eta Mundarro ez da apenas bere zelaitik atera. Lan gutxi izan du Iker Hernando atezainak, lehen zatian nagusi izan baitira etxekoak. Hegalak aprobetxatuta min egin dute lasarteoriarrek; aukerak sortu dituzte Egoitz Rodriguezek, Ivan Ruizek eta Julen Bermejok, baina ez da iritsi merezitako saria.

Gol bakarra, buruz

Kontraeraso batean etorri behar izan du golak. Zelai erdian baloia lapurtu, ezkerreko hegalaria pase luzea, eta Sergio Masaren erdiraketa buruz sareratu du Ruizek. Jokalariak bakarrik ez, zaletuek ere arnasa hartu dute gola ospatu ostean.

IVAN RUIZEK SARTU DU GOLA 29. MINUTUAN, KONTRAERASO BAT BURUZ SARERATZEAN

Mundarro erreakzionatzen saiatu da, baina urruneko falta batzuetan arriskua sortu arren, ez du defentsa gehiegi larritu.

Amaiera eskatzen

Halere, lehen zatian eginiko esfortzu fisiko handiak eragina izan du bigarreanean. Indartuta atera dira Astigarragakoak; goran ez du horrenbeste presio egin Ostadarrek, eta lasaiago jokatu du Mundarrok. Eta aukera gehiago ere sortu ditu.

Aldaketak baliatu dituzte Aizpurua eta Rekondo entrenatzaileek, taldeari arnasa emateko. Baina beherakada nabarmena izan da. Hegaletatik kontraerasoan min egiten jarraitu dute lasarteoriarrek, baina ezin izan dute bigarren gol batekin partida itxi. Harmailtan urduri begiratu diote erlojuari, harik eta azkenean epaileak amaiera adierazi duen arte.

Urrezko hiru puntu dira Ostadarrentzat, baina ezinbestekoa izango du egindako esfortzu handiari jarraipena ematea geratzen diren bi partidatan.

Saskibaloiko Ostadar erregionala, finalerdien bila

Bi partidetara jokatuko ditu final laurdenak. Maiatzaren 13an Maialen Chourraut kiroldegian jokatu dute

Txintxarri

Ostadar SKTko erregional mailako taldeak finalerako bideari hasiera emango dio asteburu honetan, final laurdenekin. Zortzi talde sailkatu dira fase honetarako; Ostadar hirugarren izan da ligan. Kanporaketa honetan Grupo Eme Oiarso SKT, seigarren sailkatua, izango du aurrez aurre.

Lehen partida larunbatean, maiatzak 5ean, 16:00etan, Erreterian jokatu dute. Buelta hilaren 13an izango da, Maialen Chourraut kiroldegian.

Talde urdin-beltzak badaki zer den Erreteriarako taldea garaitzea. Izan ere, lehen faseko ligako bi partidetan gailendu da Lasarte-Oriako taldea: 42-61 eta 52-40.

Ander Otaegik zuzentzen duen taldea gaztea da, lehen urteko eta bigarren urteko seniorrak daude. Finalerdietara iristea dute helburu.

Horregatik, kanporaketa honetan garaipenaren bila indartsu aterako dira kantxara. Lehen partidaren garaipena erdietsiz gero, etxean defendatu beharko dute finalerdietarako saikapena.



M. RUEDA

Hirugarren Tximeleta torneoan

LOKEko gimnastak maiatzeko lehiaketak prestatze aldera eskolarteko Tximeleta Torneoan aritu dira, apirilaren 28an eta 29an, Donostian. LOKEK lau talde aurkeztu ditu maila ezberdinetan torneo honetara: senior A, kadete B mailako bi eta infantil taldea. Kadete B mailako LOKE-Oriarte taldeak lortu du emaitzarik onena: hirugarren postua.

Podiumak metatzen

Buruntzazpi Txirindularitza Eskolako kideak asteburu honetan Astigarraga eta Urretxuko probetako podiumetan izan dira. Daniel Fursenko infantila Astigarragako proban lehenengo iritsi da helmugara. Urretxuko proban, berriz, kadeteek parte hartu dute. Asier Pozo hirugarren izan da, Jaime Romero seigarren eta Beñat Carbayeda 13. postua eskuratu du. Taldeko garaipena erdietsi dute.



POZO

ZORION AGURRAK



Koan
Zorionak maitea, segi beti bezain maitekor. Eguna ona pasa!



Unax
Zorionak maitea, segi beti bezain



Julen
Zorionak zure urtebetetzean. 12 muxu handi, familiaren partetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 4	DE MIGUEL
Larunbata, 5	ORUE
Igandea, 6	ORUE
Astelehena, 7	LASA
Asteartea, 8	GIL
Asteazkena, 9	ACHA-ORBEA
Osteguna, 10	URBISTONDO

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:
Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Aterpea 25. urteurreneko aurkezpena

Aterpea Merkatari elkarteak 25. urteurrena du aurtan. Urteurreneko ekintza nagusiak aurkezteko maiatzaren 8an, 20:00etan agerraldia egingo du elkarteak Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Aterpeko kideak eta kide ohiak gonbidatuak daude hurbiltzera.

Ospakizunen artean, maiatzaren 19an, afaria antolatu du Maiaalen Chourraut kiroldegian. Ostean, dantzaldia izango da, Ibai Berriak taldeak girotua.

Tiketak 40 euro balio ditu eta maiatzaren 12ra arte izango dira salgai elkarte dendetan.

Giroa porra

Asteburu honetan, Italiako Giroa hasten da. Honekin batera, Ostadar SKTk antolatzen duen Txirindularitzako Porra ere lehiatuko da.

Porran parte hartzeko boletoak eta txirindularien zerrendak ohiko tabernetan daude. Boletoak 7 euro balio ditu.

Sariei dagokienez, etapako irabazleak 60 euro eskuratuko ditu. Giroko sailkapen orokorreko lehenak, berriz, 360 euro eta bigarrenak 180 euro.

Honetaz gain, 7 urdaiazpiko zozketatuko dira boleto guztien artean eta farolilloak urdaiazpikoa dauka.

Boleto guztiak larunbatean, maiatzaren 5ean, 15:30ean jasoko dituzte.

Ttakuneko zozketako irabazleak

Ttakun kultur elkarteak apirilean Imanol Urbietaren *Kanon* kantuliburuko bi ale zozketatu ditu bere bazkideen artean. Amaia Tejeria eta Ana M^a Aguirre izan dira zorteko.

Kantu liburua Ttakun kultur elkarte bulegoan jaso dezakete irabazleek.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxariren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Irakurle txokoko errifaren sariduna

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoa urtero legez, errifa egin du. Zenbaki sariduna 348 da. Altxoa Amortoko nekazal turismoan 5 pertsonentzako egonaldia irabazi du zorteko zenbakiak.

Biyak bat elkarte gizonen ileapaindegia martxan

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du, gizonetako ileapaindegi zerbitzua martxan dela.

Ileapaindegiaren ordutegia honakoa da: astelehene ostiralera, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 16:00etatik 18:00etara.

Zubietako Udako Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak udarako haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak. Txokoetan parte hartzeko, uztailean


27ra arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak zubietatxoko@gmail.com helbidera idatzi edo 649659786 telefonora dei dezakete.

Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugaleko iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5ra. Elkarte bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro. Izena ematea elkarte bulegoan egin behar da astelehene ostiralera 10:30etik 12:30era.

ESKELAK


OROIGARRIA



Jose Ramon Galardi Iradi

Goian bego

2018ko maiatzaren 1ean hil zen, 85 urte zituela.



*Besarkada handi bat familiari,
Ttakun Kultur Elkartearen partetik.*

Ttakun Kultur Elkartea.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ALOKAIRUAN EMAN
 Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

LANA
ESKAINITZA
 Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut goizetan, Zubietan. 695 783 202.

ESKAERA
 Eskarmentudun pertsona lan bila dabil. Orduka, astegunean edo asteburuetan, garbiketa lanetarako, edo haurrak eta helduak zaintzeko. Telefonoa: 637160734

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest. Aste barruan edo asteburuetan lan egingo nuke. 628 27 24 16

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
 Frantseseko, ingeleseko eta latineko klaseak emango nituzke, baita eskola laguntzakoak ere. Ekonomikoa. 600 766 068


JAIOTAKOAK

Xuban Lopez De Castro. Apirilaren 24an.

HILDAKOAK

Isabel Nogales Garrido. Maiatzaren 2an.
Jose Ramon Galardi Iradi. Maiatzaren 1an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20



www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA
 Ttakun Kultur Elkartea
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (106)
 publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
 Ttakun Kultur Elkartea
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
 txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
 Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Santa Krutz jaiak

Kuadrillen eguna ospatuko dute Santa Krutz jaietan:

11:00etan, Kuadrilen arteko jokoak txarangarekin alaituak, Beheko plazatik
14:30etan, Kuadrilen bazkaria Beheko plazan. Mahaiaik jaso ondoren, zozketa sorpresa. Euria eginez gero, Arrate frontoian.

17:30etan, Dj Bull, Beheko plazatik hasi.

18:30etan, VII. Bizikleta Festa, Zumea Plazan.

20:00etan, Olagain txistulari taldearen eta Alberto Agirre Abesbatzaren kontzertua, Santa Krutz ermitaren parean.

20:30etan, Karaokea, txoznetan

23:00etan, Kontzertuak, txoznetan: Koban + Egurra ta Kitto

02:30etan, Pintxada feminista Andoaingo Asanblada Feministaren eskutik, txoznetan.

Andoain, egun osoa

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Hitzartuk Gune Irekia elkarriketa saioa antolatuko du:

10:15etan, Harrera.

10:30etan, Irekiera eta agenda osatu.

11:45etan, Gune Irekiko solasaldiak, adin guztietarako.

14:00etan, Bazkaria.

15:30etan, Gune irekiko solasaldiak, adin guztietarako.

16:30etan, Itxiera.

17:00etan, Jai.

Parte hartzeko eta bazkaria erreserbatzeko, komunikazioa@gurasos.org helbidean edo www.gurasos.org webgunean

Landaberri ikastola, egun osoa

LASARTE-ORIA Dantza

Mons Dansa dantza-konpainiak *Wabi-sabi* ikuskizuna eskainiko du. Familiei zuzendutako lana da. Dantzaren, bideoen, magiaren eta umorearen bidez, istorio berezia kontatuko dute. Sarrera, 3,80 euro.

ANDOAIN Santa Krutz jaiak

Santa Krutz jaietako egitaraua:

8:00etan, gaupaseroen argazkia, Espigoiean.

9:30etan, Haurrentzako arrantza lehiaketa, Espigoiean. (Federatu txartela ez duenak bertan ateratzeko aukera du).



LASARTE-ORIA Azkorteke erromeria. Santa Krutz eguna maiatzaren 3an da. Ohiturari jarraikiz, Lasarte-Oriatarrek igandean, maiatzaren 6an ospatuko dute, Azkorteke erromerian. Mezaren ostean, erromeriaz, herri kirolez eta plaza dantzez gozatuko dute ermitara hurbiltzen diren herritarrak. Indarrak berreskuratzeko, jatekorik ere izango da bertan jarriko den tabernatxoan. Azkorteke ermita, igandea, 11:00etatik 14:00etara

10:00etan, artisauen azoka, Zumea plazan.

11:30etan, Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia, Zumea plazan.

12:00etan, bertsolari eta txalaparta kalejira, Zumea plazatik.

12:00etan, kantu kalejira, Bastero.

14:00etan, auzo bazkaria bakoitza bere bazkariarekin, Kale Nagusian (Eurria eginez gero, Makaldegiko aterpean)

Ondoren, La Jodedera, Kale nagusian

17:00etan, erreka jaitsiera, Etxarritik.

18:00etan, haurrentzako tailerrak, jolasak eta puzgarriak, Zumea plazan.

19:00etan, bakailao txapelketa, Kale nagusian.

19:00etan, burrunba elektrotxaranga, txoznetatik.

21:30etan, zezen suzkoa, zubiaurretik.

22:30etan, Peña Santa Krutz danborrada.

00:00etan, kontzertuak, txoznetan:

Rukula + Atom rhumba
+ Ingo al deu?

Andoain, egun osoa

DONOSTIA Manifestazioa

Gipuzkoako pentsiodunek manifestazioa antolatuko dute pentsioen igoera nahikoa ez dela salatzen.

Donostia, 17:30etik aurrera

ERRETERIA Kontzertua

Alboka abesbatzak kontzertua eskainiko du.

Madalena basilika, 20:00etan

IGANDEA 6

LASARTE-ORIA Erromeria

Santa Krutz eguna ospatzeko Azkorteke erromeria antolatuko da: **11:00etan**, meza.

11:45etan, Ttiriki Ttarakaren erromeria.

12:00etan, Herri kirolak.

12:45etan, plaza dantzak.

Azkorteke ermita, goiza

ANDOAIN Santa Krutz jaiak

Santa Krutz jaietako azken eguna:

12:00etan, sagardo lehiaketaren XXXII. edizioa eta "Basataloak" talogileak, Zumea plazan.

13:00etan, Andoaingo banda eta Mugaz taldeen emanaldia, Juanita Alkain plaza ondoan

18:00etan, herri danborrada.

18:30etan, Herriko taldeen kontzertua, Beheko plazan:

Txili Pipar, Hail Noise, Dukkha
eta Malkogariyak

19:00etan, plaza dantzak, Zumea plazan.

ASTEAZKENA 9

LASARTE-ORIA Opera

Proiektio digitalen atalean, G. Pucciniren *La Boheme* operaz gozatuko dute zaleak. Jatorrizko bertsoien eskainiko da gaztelaniazko azpitituluekin. Sarrera aurretik, 7,5 euro; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona, 19:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Quando dejes de quererme

Ostirala: 22:00.

Petter Rabbit

Igandea: 17:00.

La razón brillante

Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Un sol interior

Larunbata

19:30, 22:00.

Igandea: 19:30.

Astelehena:

19:30, 22:00.

DONOSTIA

ANTIGUO BERRI

#Sexpact

Ostirala: 17:00,

19:30, 22:00.

Larunbata: 17:00,

19:30, 22:00.

Igandea: 17:00,

19:30, 22:00.

Super maderos 2

Ostirala:

16:30, 18:45,

20:45, 22:45.

Larunbata:

16:30, 18:30,

20:30, 22:30.

Igandea:

16:30, 18:30,

20:30, 22:30.

Vengadores:

Infinity war

Ostirala: 17:00,

18:00, 19:30,

21:00, 22:00.

Larunbata: 17:00,

18:00, 19:30,

21:00, 22:00.

Igandea: 17:00,

18:00, 19:30,

21:00, 22:00.

Campeones

Ostirala:

17:00, 18:30,

19:30, 22:00.

Larunbata:

17:00, 18:30,

19:30, 22:00.

Igandea:

17:00, 18:30,

19:30, 22:00.

Un lugar tranquilo

Ostirala: 16:30,

20:45, 22:45.

Larunbata:

20:45, 22:45.

Igandea:

20:45, 22:45.

Noche de juegos

Ostirala:

17:15, 20:00.

Larunbata:

17:15, 20:00.

Igandea:

17:15, 20:00.

7 días en

Entebbe

Ostirala:

16:30, 22:30.

Larunbata: 22:30.

Igandea: 22:30.

La casa junto al mar

Ostirala: 18:30.

Larunbata: 18:30.

Igandea: 18:30.

Ready Player One

Ostirala: 21:00.

Larunbata: 21:00.

Igandea: 21:00.



LABURPENA

Quando dejes de quererme

Zuzendaria: Igor Legarreta. **Gidoilaria:** Asier Guerricaechevarria, Jon Iriarte, Javier Felix Echaniz. **Herr.:** Espainia (2018). **Aktoreak:** Flor Torrente, Miki Esparbe, Eduardo Blanco, Joaquin Climent, Antonio Dechent, Eneko Sagardoy, Kandido Uranga. **Iraupena:** 101 minutu.

Iraganean murgiltzen

Igor Legarreta hainbat lanetan ezaguna da zinema munduan: gidoilari, ekoizle, zuzendari laguntzaile... *Quando dejes de quererme* bere lehen film luzea da.

Laura (Flor Torrente) Fredo (Eduardo Blanco) bere aitaordearekin bizi da Buenos Aires, Argentinan. Umea zela, amarekin Euskal Herria utzi zuten.

Ustez bere aitak ama eta biak bakarrik utzi zituen, baina egun batean Espainiatik dei bat jasotzen du, bere aitaren gorpua bizi zireneko herri inguruko basoan agertu da. Gorpuren analisi forentsearen arabera, Felix Careaga (Eneko Sagardoy), bere aita tiro batez hil zuten, duela 30 urte.

Laurak Espainiara bidaiatzea erabakitzen du, bere aita ehortzi eta bere amaren azken nahia betetzeko, bere errautsak jaioterrian sakabanatzea. Fredo berarekin doa.

Bidaian Javier Egoskue (Miki Esparbe) ezagutzen du. Aseguru agentea da eta bere aitak bizitza aseguru zuela jakinarazten dio Laurari.

Felix Careagaren hilketaren istorioak jakinmina sortzen dio Egoskueri. Laurak liluratuta dauka gainera. Arrazoi hauek direla eta, Laura eta Fredorekin batera Felix Careagaren hilketa ikertzen hasten da erruduna ezagutu nahian. Misterioz betetako bidea izango da.

Bideo = TIEN 21 = Lagunak

Finantziaketa neurria

Garraio zerbitzua

Erabilitako gailuen jasotzea

Aholkularitza espezializata

Preziorik onena

Etxekotesna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Udaberriko TOP 21 aukera!

Etxekotesna elektrikoetan aukera zabalena prezio onenean!

Telebistak Garbigailuak Hozkailuak Labeak Bitrozeramikak

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- **Ezinbestekoa:** - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea
- Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura)
- **Baloratuko da:** - Euskalgintza eta herrigintza arloak ezagutzea.
- Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
- Taldean lan-egiteko gaitasuna.
- Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
- Euskara C1 edo C2 izatea.
- Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriaketak, aurrekontuak...
- Ofimatika ezagutzak.

Bidali curriculuma maiatzaren 11 baino lehen: ttakun@ttakun.eus · Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria · 943 37 14 48

ORIARTE Institutua

Publikoa

2018-2019
IKASTURTEA
Izen ematea
Batxilergoa

- ✓ Zientziak eta Teknologia
- ✓ Giza eta Gizarte Zientziak

ESKAERAK

On-line
2018ko maiatzaren 2tik 13ra arte

Ikastetxean
2018ko maiatzaren 2tik 14ra arte

info@oriarte.eus Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA | Tel.: 943372852 / 943372277

www.oriarte.eus

LHII ERAIKIN ADIMENDUNEN GARAPEN IRAUNKORRA
CIFE DESARROLLO SOSTENIBLE EN EDIFICACIÓN INTELIGENTE

LANBIDE HEZIKETA

ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERAIKUNTZA-OBRAK ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

 BARRUKO OBRAK, DEKORAZIOA ETA BIRGAITZEKO TEKNIKARIA

 ERAIKUNTZAKO TEKNIKARIA

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

MAIATZAK 9 14.30-18.00

ERAIKUNTZA IRAUNKORRA

ETXE BAT ERAIKITZEKO GAI IZANGO ZARA 2 URTETAN

EZIN BADUZU BERTARATU, DEITU ETA HARTU HITZORDUA!

Donostia Etorbidea, 5 Lasarte-Oria Gipuzkoa
T.: 34 943 569 222 M.: eagi@eagi.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SALA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

www.eagi.eus